Gai-zerrendako puntua: 12

# Barne-erregimeneko araudiaren aldaketen proposamenen laburpena, 2024ko BNan onartzeko

## AURKIBIDEA

**Lurralde-antolakuntza (Barne-erregimeneko araudiaren 5. atala)** **1**

5.1.- Tokiko taldeak 2

5.4.- Tokiko taldeen hornidura ekonomikoa 5

5.5.- Tokiko taldeentzako urteko aurrekontuaren oinarriak 7

## Lurralde-antolakuntza (Barne-erregimeneko araudiaren 5. atala)

Barne-erregimeneko araudiaren 5.1 artikuluaren A), B), C) eta D) atalak, 5.4 artikuluaren A) atala eta 5.5 artikuluaren D) atala aldatzeko proposamena.

| Oraingo testua | Zuzenketa |
|---|---|
| <u>5.1.- Tokiko taldeak</u><br><br>A) Ezaugarriak:<br>● Parte-hartze boluntarioan oinarritutako antolakuntza-unitatea eta Kooperatibako bazkideen topagune hurbilena.<br>● Tokiko taldeen jarduera nagusiak hauek dira: eztabaidak sustatzea, zabalkundea, prestakuntza eta lurraldean Kooperatiba ezagutzera ematea. | <u>5.1.- Tokiko taldeak</u><br><br>A) Ezaugarriak:<br>● Parte-hartze boluntarioan oinarritutako antolakuntza-unitatea eta Kooperatibako bazkideen topagune hurbilena.<br>● Tokiko taldeen jarduera nagusiak hauek dira: eztabaidak sustatzea, zabalkundea, prestakuntza eta lurraldean Kooperatiba ezagutzera ematea.<br>● Tokiko taldeek, haien jarduera nagusietan, Kode Etikoan jasotako balioen eta kooperatibaren inspirazio diren politiken arabera jardun behar dute. |
| B) Nola sortzen dira tokiko taldeak?<br>● Kooperatibako 5 bazkidek taldea sortzeko eskaera egin behar diote Errektore Kontseiluari (tokiko taldeen dinamizazioaren bidez).<br>● Jarduera-eremu gisa zehazten den eskualdeko gainerako bazkideei taldea sortuko dela jakinarazten zaie, parte-hartzaile gehiago gehitzeko.<br>● Tokiko taldea sortzeko batzarra egiten da, harremanetarako pertsonak zeintzuk izango diren, komunikazio-tresnak kudeatzeaz nor arduratuko den, zer-nolako lanak egingo dituzten eta abar ezartzeko. | B) Nola sortzen dira tokiko taldeak?<br>● Kooperatibako 5 bazkidek taldea sortzeko eskaera egin behar diote Errektore Kontseiluari (tokiko taldeen dinamizazioaren bidez).<br>● Jarduera-eremu gisa zehazten den eskualdeko gainerako bazkideei taldea sortuko dela jakinarazten zaie, parte-hartzaile gehiago gehitzeko.<br>● Tokiko taldea sortzeko batzarra egiten da, harremanetarako pertsonak zeintzuk izango diren, komunikazio-tresnak kudeatzeaz nor arduratuko den, zer-nolako lanak egingo dituzten eta abar ezartzeko.<br>● Bilerako akta tokiko taldeen koordinaziora eramaten da tokiko |

| | |
|---|---|
| ● Bilerako akta tokiko taldeen koordinaziora eramaten da tokiko taldea aktibatzeko.<br><br>Errektore Kontseiluak tokiko talde bat desegitea erabakitzeko ahalmena izango du, uste badu taldeak ez dituela errespetatzen Kooperatibaren balioak eta helburuak, edo baloratzen badu taldeak benetako jarduerarik ez duela. | taldea aktibatzeko. Eraketa-aktan pertsona hauen datu pertsonalak agertu behar dira: erreferentziazko pertsonarenak eta Tokiko taldeen eremintetara (helbide elektronikoa, Drive-a, mugikorra, partaide-erregistroa, baimenak, etab.) sarbidea duten Tokiko taldeko kideena.<br>● Tokiko taldea aktibotzat joko da gutxienez Tokiko taldeko kide batek jarduera nagusietakoren bat gauzatzen duen eta Tokiko taldearen posta-elektrikokoa eraginkortasunez kudeatzen duen bitartean.<br><br>Errektore Kontseiluak tokiko talde bat desegitea erabakitzeko ahalmena izango du, uste badu taldeak ez dituela errespetatzen Kooperatibaren balioak eta helburuak, edo baloratzen badu taldeak benetako jarduerarik ez duela. |
| C) Tokiko taldeen zereginak haien jarduera-eremuan:<br><br>● Inguruko zabalkunde-, informazio- eta prestakuntza-jarduerak koordinatzea eta egitea.<br>● Sorkuntza berriztagarriko proiektuak abiaraztea proposatzea eta aukerak antzematea.<br>● Lurraldeko bazkideek lan-batzordeetan edo Kooperatibaren partaidetza-gune presentzial eta birtualetan parte hartzea sustatzea.<br>● Kooperatiba ordezkatzea erakunde publikoen eta taldeen lurralde-mailako beste erakundeen aurrean, kontaktuak, lankidetzak edota hitzarmenak egiteko. | C) Tokiko taldeen zereginak haien jarduera-eremuan:<br><br>● Inguruko zabalkunde-, informazio- eta prestakuntza-jarduerak koordinatzea eta egitea.<br>● Sorkuntza berriztagarriko proiektuak abiaraztea proposatzea eta aukerak antzematea.<br>● Lurraldeko bazkideek lan-batzordeetan edo Kooperatibaren partaidetza-gune presentzial eta birtualetan parte hartzea sustatzea.<br>● Kooperatiba ordezkatzea erakunde publikoen eta taldeen lurralde-mailako beste erakundeen aurrean, kontaktuak, lankidetzak edota hitzarmenak egiteko.<br>● Tokiko taldea aktibo dagoen bitartean, 5.1, B) atalean aipatutako pertsonen bajen eta alten berri emateko konpromisoa izatea indarrean dagoen datuak babesteko araudia betetzeko. Tokiko taldeen koordinazioari dagokien aldaketen |

| | |
|---|---|
| | berri eman beharko zaio (alten kasuan, kide berrien datu pertsonalak eman beharko zaizkio).<br>• Tokiko taldeen jarduera edo gastu ekonomikoek ezin dituzte inoiz barne hartu kooperatibaren balioekin bat ez datozen, energia-trantsizioa sustatzeko helburua betetzen ez duten edota bestelako jarduera bati dagozkion kontzeptu eta produktuak.<br>• Gainera, ezingo da erabili kooperatibaren titulartasunekoa ez den banku-konturik edo bestelako banku-produkturik. |
| D) Tokiko taldeen eskura dauden baliabideak<br>• Tokiko taldeen koordinakundea: tokiko taldeak koordinatzeaz eta dinamizatzeaz arduratzen den taldea.<br>• Lurraldeko bazkideen zerrenda, datu pertsonalen kudeaketarako izendatutako pertsonaren bitartez.<br>• Jarduteko behar dituzten baliabide ekonomikoak.<br>• Komunikazio-tresnak (bloga, sare sozialak, *mailinga*) eta demokrazia-tresnak (Parte hartu, ezagutza-plataforma).<br>• Baliabideen biltegirako sarbidea, non informazioa tokiko taldeen eskura dagoen.<br>• Koordinazio-organoetan sartzea, gainerako tokiko taldeekin, Kooperatibako sailekin eta tokiko taldeen koordinakundearekin batera.<br>• Kooperatibaren webgunean argitaratzen eta eguneratzen den tokiko taldeen zerrendan agertzea.<br>• Tokiko taldearen funts ekonomikoak kudeatzeko banku-kontua.<br>• Tokiko taldera egokitutako irudi korporatiboa.<br>• Telefono mugikorra izateko aukera (urteko zuzkidura ekonomikoaren kontura).<br>• Kooperatibaren merchandisinga (liburuxkak, kamisetak, eta abar) lortzeko aukera. | D) Tokiko taldeen eskura dauden baliabideak<br>• Tokiko taldeen koordinakundea: tokiko taldeak koordinatzeaz eta dinamizatzeaz arduratzen den taldea.<br>• ~~Lurraldeko bazkideen zerrenda, datu pertsonalen kudeaketarako izendatutako pertsonaren bitartez.~~<br>• Jarduteko behar dituzten baliabide ekonomikoak.<br>• Komunikazio-tresnak (bloga, sare sozialak, *mailinga*) eta demokrazia-tresnak (Parte hartu, ezagutza-plataforma).<br>• Baliabideen biltegirako sarbidea, non informazioa tokiko taldeen eskura dagoen.<br>• Koordinazio-organoetan sartzea, gainerako tokiko taldeekin, Kooperatibako sailekin eta tokiko taldeen koordinakundearekin batera.<br>• Kooperatibaren webgunean argitaratzen eta eguneratzen den tokiko taldeen zerrendan agertzea.<br>• ~~Tokiko taldearen funts ekonomikoak kudeatzeko banku-kontua.~~<br>• Tokiko taldera egokitutako irudi korporatiboa.<br>• Telefono mugikorra izateko aukera (urteko zuzkidura ekonomikoaren kontura).<br>• Kooperatibaren merchandisinga (liburuxkak, kamisetak, eta abar) lortzeko aukera. |

| | |
|---|---|
| ● Ageriko ondoeza edo gatazkak sortzen badira, gatazkak kudeatzeko eta giroa baretzeko mekanismoak eskura. | ● Ageriko ondoeza edo gatazkak sortzen badira, gatazkak kudeatzeko eta giroa baretzeko mekanismoak eskura. |
| 5.4.- Tokiko taldeen hornidura ekonomikoa<br><br>A) Tokiko taldeen jardueraren finantzaketa:<br><br>Tokiko taldeek haien jarduerak finantzatzeko dirua honako bide hauen bitartez lortzen dute:<br><br>● Som Energiaren tokiko talde izateagatik soilik Kooperatibak zuzenean ematen dizkien baliabide ekonomikoak.<br>● Tokiko taldeen autogestiorako prestatzen den zabalkunde-materialaren salmenta.<br>● Kooperatiba edo eredu energetiko berriztagarri eta herritarra ezagutzera emateagatik lortzen dituzten sarrerak, halakorik badago.<br><br>B) Tokiko taldeen jarduerarako gordetzen diren Kooperatibaren funtsak:<br><br>Tokiko taldeen jarduerarako Kooperatibak gordetzen dituen funtsak honela banatuko direla ezartzen da:<br><br>● Kooperatibako tokiko taldeen artean funtsak banatzeko barne-irizpide orokorra aurretik izandako jarduera-mailaren arabera adostutako minimo batean oinarritzen da. Minimo hori urte hasieran esleitzen zaie tokiko taldeei, baina behin-behineko zenbatekoa izango da Batzar Nagusian aurrekontua onartu arte.<br>● Ekitaldiaren amaieran, tokiko taldeek jardueren memoria edo egindako ekintzen bilduma aurkeztu behar dute.<br>● Gogoan hartzen da baita ere tokiko taldeak bere jardueran aritzeko behar duen jarduera-eremuaren dimentsioa. | 5.4.- Tokiko taldeen hornidura ekonomikoa<br><br>A) Tokiko taldeen jardueraren finantzaketa:<br><br>Tokiko taldeek haien jarduerak finantzatzeko dirua honako bide hauen bitartez lortzen dute: Som Energiaren Tokiko talde izateagatik soilik Kooperatibak zuzenean ematen dizkien baliabide ekonomikoak.<br><br>● ~~Tokiko taldeen autogestiorako prestatzen den zabalkunde-materialaren salmenta.~~<br>● ~~Kooperatiba edo eredu energetiko berriztagarri eta herritarra ezagutzera emateagatik lortzen dituzten sarrerak, halakorik badago.~~<br><br>B) Tokiko taldeen jarduerarako gordetzen diren Kooperatibaren funtsak:<br><br>Tokiko taldeen jarduerarako Kooperatibak gordetzen dituen funtsak honela banatuko direla ezartzen da:<br><br>● Kooperatibako tokiko taldeen artean funtsak banatzeko barne-irizpide orokorra aurretik izandako jarduera-mailaren arabera adostutako minimo batean oinarritzen da. Minimo hori urte hasieran esleitzen zaie tokiko taldeei, baina behin-behineko zenbatekoa izango da Batzar Nagusian aurrekontua onartu arte.<br>● Ekitaldiaren amaieran, tokiko taldeek jardueren memoria edo egindako ekintzen bilduma aurkeztu behar dute.<br>● Gogoan hartzen da baita ere tokiko taldeak bere jardueran aritzeko behar duen jarduera-eremuaren dimentsioa.<br>● Tokiko taldeak ekarpen ekonomiko osagarri bat behar badu, urteko |

<table>
<tr>
<td>

- Tokiko taldeak ekarpen ekonomiko osagarri bat behar badu, urteko edozein unetan, behar hori justifikatzen duen jarduera-proposamen bat aurkez diezaioke Errektore Kontseiluari (edo kontseiluak izendatutako pertsonari).

Tokiko taldeek erabilgarri izango duten hornidura ekonomiko totala Batzar Nagusiak onartzen duen urteko aurrekontuaren araberakoa da.

Errektore Kontseiluak tokiko talde bakoitzarentzako oinarrizko zuzkidura onartu behar du, "Tokiko taldeentzako urteko aurrekontuaren oinarriak" atalean xedatzen den moduan.

</td>
<td>

edozein unetan, behar hori justifikatzen duen jarduera-proposamen bat aurkez diezaioke Errektore Kontseiluari (edo kontseiluak izendatutako pertsonari).

Tokiko taldeek erabilgarri izango duten hornidura ekonomiko totala Batzar Nagusiak onartzen duen urteko aurrekontuaren araberakoa da.

Errektore Kontseiluak tokiko talde bakoitzarentzako oinarrizko zuzkidura onartu behar du, "Tokiko taldeentzako urteko aurrekontuaren oinarriak" atalean xedatzen den moduan.

</td>
</tr>
<tr>
<td>

<u>5.5.- Tokiko taldeentzako urteko aurrekontuaren oinarriak</u>

Tokiko taldeei Kooperatibaren funtsetatik esleitzen zaien zuzkidura ekonomikoak eskema honi jarraitzen dio:

A) Oinarrizko zuzkidura:

- tokiko talde sortu berria: 300 €/urteko
- 1. kategoriako tokiko taldea: 500 €/urteko
- 2. kategoriako tokiko taldea: 1.000 €/urteko

Tokiko talde sortu berriek *rollup* bat (gehienez, 150 €) ordaintzeko diru nahikoa dute, baina gastu hori ez zaie kenduko oinarrizko zuzkiduratik.

Errektore Kontseiluak erabakiko du zein kategoria dagokion tokiko talde bakoitzari, honako hauek kontuan hartuta:

- Aurreko urtean izandako jarduera (Jardueren Memorian jasotzen dena).
- Aurreko urtean egindako gastua (datu horrek, zeharka, tokiko taldeak egiten duen distantzia islatzen du).

</td>
<td>

<u>5.5.- Tokiko taldeentzako urteko aurrekontuaren oinarriak</u>

Tokiko taldeei Kooperatibaren funtsetatik esleitzen zaien zuzkidura ekonomikoak eskema honi jarraitzen dio:

A) Oinarrizko zuzkidura:

- tokiko talde sortu berria: 300 €/urteko
- 1. kategoriako tokiko taldea: 500 €/urteko
- 2. kategoriako tokiko taldea: 1.000 €/urteko

Tokiko talde sortu berriek *rollup* bat (gehienez, 150 €) ordaintzeko diru nahikoa dute, baina gastu hori ez zaie kenduko oinarrizko zuzkiduratik.

Errektore Kontseiluak erabakiko du zein kategoria dagokion tokiko talde bakoitzari, honako hauek kontuan hartuta:

- Aurreko urtean izandako jarduera (Jardueren Memorian jasotzen dena).
- Aurreko urtean egindako gastua (datu horrek, zeharka, tokiko taldeak egiten duen distantzia islatzen du).

</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| B) Aparteko gastuak:<br><br>Tokiko talde batek ekarpen ekonomiko osagarri bat behar badu (oinarrizko aurrekontua urtea bukatu baino lehen gastatu duelako edo jarduera berezi bat egin nahi duelako), urteko edozein unetan, Errektore Kontseiluari, edo kontseiluak izendatutako pertsonari, zer egin nahi duen eta horretarako zenbat diru behar duen zehazten duen jardun-plan bat aurkez diezaioke.<br><br>Errektore Kontseiluak tokiko taldeak aurkeztutako dokumentua egokitzat jotzen badu, aparteko ekarpena ematea erabaki dezake, une horretan tokiko taldeentzat erabilgarri dagoen aurrekontua eta dokumentu honetan ezartzen diren mugak kontuan hartuta.<br><br>C) Tokiko taldeen zuzkidura-mugak:<br><br>● Tokiko talde bakar batek ezin du eskuratu tokiko taldeentzako aurrekontu totalaren % 10 baino gehiago.<br>● Tokiko taldeen gastuek ezin dituzte barne hartu Kooperatibaren balioekin bat ez datozen, eredu energetikoa aldatzeko helburua betetzen ez duten edota beste jarduera bati dagozkion kontzeptu eta produktuak.<br><br>D) Erabilgarritasuna eta justifikazioa:<br><br>● Kooperatibaren banku-kontua duten tokiko taldeak: dirua aurretik jasotzen dute.<br><br>Kooperatibaren banku-kontu bat kudeatzen duten tokiko taldeek transferentzia bidez jasotzen dute haien zuzkidura urteko lehen hiruhilekoan zehar. Hurrengo zuzkidura jasotzeko, aurreko urteko memoria aurkeztu behar dute.<br><br>● Banku-konturik ez duten tokiko taldeak: dirua aurreratzen dute eta gero erregularizatu egiten da. | B) Aparteko gastuak:<br><br>Tokiko talde batek ekarpen ekonomiko osagarri bat behar badu (oinarrizko aurrekontua urtea bukatu baino lehen gastatu duelako edo jarduera berezi bat egin nahi duelako), urteko edozein unetan, Errektore Kontseiluari, edo kontseiluak izendatutako pertsonari, zer egin nahi duen eta horretarako zenbat diru behar duen zehazten duen jardun-plan bat aurkez diezaioke.<br><br>Errektore Kontseiluak tokiko taldeak aurkeztutako dokumentua egokitzat jotzen badu, aparteko ekarpena ematea erabaki dezake, une horretan tokiko taldeentzat erabilgarri dagoen aurrekontua eta dokumentu honetan ezartzen diren mugak kontuan hartuta.<br><br>C) Tokiko taldeen zuzkidura-mugak:<br><br>● Tokiko talde bakar batek ezin du eskuratu tokiko taldeentzako aurrekontu totalaren % 10 baino gehiago.<br>● Tokiko taldeen gastuek ezin dituzte barne hartu Kooperatibaren balioekin bat ez datozen, eredu energetikoa aldatzeko helburua betetzen ez duten edota beste jarduera bati dagozkion kontzeptu eta produktuak.<br><br>D) Erabilgarritasuna eta justifikazioa:<br><br>● Kooperatibaren banku-kontu~~a~~ lotua duten tokiko taldeak: dirua aurretik jasotzen dute.<br><br>Kooperatibaren banku-kontu lotua ~~bat kudeatzen~~ duten tokiko taldeek transferentzia bidez jasotzen dute haien zuzkidura urteko lehen hiruhilekoan zehar. Hurrengo zuzkidura jasotzeko, aurreko urteko memoria aurkeztu behar dute.<br><br>● Banku-konturik ez duten tokiko taldeak: dirua aurreratzen dute eta gero erregularizatu egiten da. |

| | |
|---|---|
| Tokiko talde horiek behar dituzten gastuak egin eta, gero, gastuen orria aurkezten dute aurreratutako dirua berreskuratzeko. Taldeek dirua nahi bezain maiz berreskura dezake: ez soilik urtean behin, gastuak pilatu ahala ere dirua itzultzeko eska diezaioke kontseiluari. Era berean, aurreko urteko jarduera-memoria aurkeztu beharko dute urteko lehen hiruhilekoan.<br><br>E) Tokiko taldeen topaketetan parte hartzea:<br><br>Taldeko edozein kidek parte har dezake topaketetan. Kooperatibak, tokiko talde bakoitzeko, bi lagunen garraio-, mantenu- eta ostatu-gastuak ordaintzen ditu. | Tokiko talde horiek behar dituzten gastuak egin eta, gero, gastuen orria aurkezten dute aurreratutako dirua berreskuratzeko. Taldeek dirua nahi bezain maiz berreskura dezake: ez soilik urtean behin, gastuak pilatu ahala ere dirua itzultzeko eska diezaioke kontseiluari. Era berean, aurreko urteko jarduera-memoria aurkeztu beharko dute urteko lehen hiruhilekoan.<br><br>E) Tokiko taldeen topaketetan parte hartzea:<br><br>Taldeko edozein kidek parte har dezake topaketetan. Kooperatibak, tokiko talde bakoitzeko, bi lagunen garraio-, mantenu- eta ostatu-gastuak ordaintzen ditu. |

## Bozkatu beharreko galderak:

Barne-erregimeneko araudiaren 5.1 artikulurako proposatutako aldaketak onartzen dituzu?

Barne-erregimeneko araudiaren 5.4 artikulurako proposatutako aldaketak onartzen dituzu?

Barne-erregimeneko araudiaren 5.5 artikulurako proposatutako aldaketak onartzen dituzu?